

# Inoiz amaitzen ez den jolasa



**KARMELE GISASOLA  
ZENIKAZELAIA**  
HERRI KIROLARIA

**T**xikitan, mila eta bat jolas genituen egunerokotasunean jolasteko. Batzuk korrika jolasten genituen, beste batzuk baloiarekin, panpinekin, gomarekin edota hitzekin. Bada hitzekin jolasten genuen jolas bat, konturatu naizena bizitza guztirako izango dela. Ez gara ohartzen jolas horretan gabiltzanik, baina denok “jolasten” dugu, batzuetan nahita eta beste askotan nahi gabe.

Ze jolasez ari naizen? Ez dakit zuek nola deitzen zenioten jolas horri, baina guk “*telefono escacharrao*” deitzen genion. Euskara jatorrean, “telefono hautsia”, “hondatutako telefonoa” edota “telefonoaren jolasa”.

Eta zertan datza jolas hori? Ilaran edo korroan nahi beste lagun jarri eta hasierako pertsonak esaldi bat esan behar dio aldamenekoari belarrira. Horrek hurrengoari eta horrela ilara edo korro guztian pasako da hasierako pertsonak asmatu duen esaldia belarriz belarri, azken pertsonarengana heldu arte. Azken horrek ozen esan behar du esan diotena eta egiaztatzen da ea aurreneko pertsonak esan duen esaldi bera den.

Askotan barrez lehertzen ginen, hasierako esaldiak ez baitzuen amaiera-koarekin zerikusirik. Horrela konturatzatzen ginen bidean nola galtzen edo transformatzatzen zen informazioa. Txi-

kitan ez genion inportantziarik ematen jolas horri, jolas hutsa baitzen, momentukoa eta askotan barre algarekin amaitzen zena. Gainera, ez genion inori kalterik egiten.

Baina gaur egun, egunero egiten dugun gauza da. Aldamenekoak hitza edo esaldia esan beharrean, askotan pasarteak, bizipenak kontatzen dizkigute. Eta guk, dena ulertu dugulakoan, hurrengoari informazio hori pasatzen diogunean, bidean pasarte asko galtzen dira. Ez duzue ala uste?

Zenbat aldiz pasa zaizue, “urlia ospitalera sartzen ikusi dute”; hurrengo astean, “urliari zerbait aurkitu diote eta ez dira berri onak” esaten dizute eta urliari galdetu diozunean ea zelan dagoen, harrituta begiratu zaitu. Ospitalean frogia sinple batzuk egitera bakarrik joan delako.

Eta ez naiz urliari buruz bakarrik ari. Norberak ere askotan norbere bizipenak kontatzen dituzenean, zenbat aldiz entzun duzue esandakoaren bertsio berritua? Txikitan ez bezala, orain min eman dezake. Esaten denak askotan ez duelako egiaren itxurarik ere.

Horregatik, bertsio berritu faltsu asko ekiditeko, txikitan bezala, ondo etortzen da hasierako informazioa amaierakoarekin alderatzea. ●

## Mazan



**ITXARO BORDA**  
IDAZLEA

**L**eku izen bakarra aski da, azken denbora hauetan gertatu den emakumeen aurkako biolentzia kasurik larriena aipatzen hasteko: Probertzako herri horretan, senar batek emaztea kimikoki menderatu eta beste gizon batzuen –ehun bat omen dira– sexu-meneko utzi du hamar urtez. Hilotz antzeko gorputza erasotzen zuten bitartean, Dominique Pélicot-ek filmatzen zituen.

Irudikatzea zaila den arren, auzitan diren 51 gizonetakoak “susmo guzien gaineratik” dabilta. Kondena pisua ekarriko liekeen bortxaketaren errua ez dute onartzen, eta akusatu bakoitzak badu

bere justifikazioa, egin duena minimizatzeke. Gaitza eragiteko bezain egin dutena arrazoitzeko imajinazio erraldoia dute birigarro horiek.

Frantziar indarrean den bortxaketa kulturarekiko gogoetak askatu dira, Mazaneko auzia publikoki pasatzen ari delako, Gisèle Pélicot-en nahikundez. Lekukotasunak datoz plazara, Compiègne eskualdeko 2020ko “turnantearen” inguruan demagun: hor ere, neskek edo mutikoak, bere taldeko lagunei bortxa-gai “oparitzen” zieten maite zuten beren andregaiak edo beraien adiskiderik hoberena!

Errealitateak fikzioa lehertzen du. ●